

Bakaikuko Euskara Batzordeak sustaturiko inauteriak dira. 1936ko estatu kolpeak eta ondorengo gerrak eta diktadurak inauteririk gabe utzi zuten Bakaiku. Herriko Euskara Batzordeak gogoak freskatu zituen, eta, horrela, 1997ko otsailaren 15eko arratsaldeko azken orduan **kamarro beldurgarriak**, atzera ere, Bakaikuko kaleetara atera ziren. **Kamarro txirri txarro** esanez zirikatu zuen izan zen. Larunbat hartan bertan afari arrakastatsua izan zen elkartean.

Kamarroa da Bakaikuko (Nafarroa) inauterietako pertsonaia. Mozorro guztiak dira Kamarro, ez dauka janzkera zehatzik. Inaute larunbatean ateratzen dira Kamarroak Bakaikun. Herriko elkartean elkarrekin bazkaldu ondoren, mozorrotu eta etxez-etxe abiatzen dira goldea garraiatuz eta hautsak botaz. **Zaparra** deitzen zaio Kamarroek eskuan darabilten makil luzeari, eta herritarrak eta bereziki umeak beldurtzen aritzen dira herriko kaleetan.

PROGRAMAZIOA

12:30 Kamarro txiki kalejira

14:00 Bazkari herrikoia

17:30 Kamarro kalejira

22:30 Trikidantz